



## DUELA 30 URTEKO SALAKETA BERDINA

Euskal Herrian Euskaraz taldeak elkarretaratzea egingo du bihar 19:30ean Tolosako Triangulo plazan >2

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea**  
**2010-03-02**

VIII. URTEA 1.941. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Sutea Musun Bordako beheko solairuan hasi zen eta herri guztian ikusi zitekeen kea. MAMEN UHARTE

## SUAK KALTE HANDIAK ERAGIN DITU MUSUN-EN

**LEITZA** Baserria ia erabat kiskali duen sutea igandean izan zen, baina atzo oraindik ere kea ikus zitekeen, baita sua ere hainbat puntutan >3

## Asteburu gogoangarria Joseba Otaegi, Ruben Saralegi eta Arkaitz Olanorentzat

**KIROLA** Trindoor-eko neska tolosarrek aurrera egin duten; Munduko Txapelketatik etxera etorri dira eskualdeko lau tiratzaileak >4-5



San Juan eskolan eta Aralar Institutuan izango dira guraso eskolak. I. LORTIZ DE ZARATE

## «Familia eta elkarbizitza giroa hobetzeko» ikastaroak

**ALEGIA** Gurasoentzako eskolak antolatu dituzte San Juan eskolan eta Aralar Institutuan >6

## Udalak 2010. urteko aurrekontuak onartu ditu

**IBARRA** Ezker Batuaren ustez «kudeaketa txarraren emaitza dira» kontu hauek >7

# EHEk elkarretaratzea deitu du hezkuntza eredu euskaldun eta bakarraren alde

**Kultura** » Bihar Triangulo plazan izango da protesta ekitaldia, 19:30etik aurrera; eskolek egoera larria bizi dutela uste dute.

## ERREDAKZIOA

Euskal Herrian Euskaraz taldeak biharko mobilizazio deia luzatu du. Herri mugimenduko eragile euskaltzaleak 30 urte bete dituzten aurten, eta beraien hitzetan «duela 30 urte bezala salatu behar du irakaskuntzaren alorretik eman eta euskararen desagertzea jomugan dituzten politikak». 30 urte daromatxate herria berreuskalduntze-



Biharko elkarretaratzea deitu du Euskal Herrian Euskarazek. HITZA

ko borrokan, eta urte guzti hauetan egindako bidean, ez dira gutxi izan eskolen aferan eman diren «erasoak eta iruzurrak», eta oraindik orain, «eraso eta iruzur» be-

rrien aurrean kokatzea egokitzen zaiela diote.

EHEk lan asko egin du euskararen berreskurapena lortzeko. Euskararen aldeko lanak hainbat frui-

tu ere eman ditu, horietako batzuk hezkuntzan: ikastolen sorrera (Frankismo garaian) eta garapena; eskola publikoetan euskarazko lezioak irekitzea; edo azken aldiaren hainbat eskola kristauetan euskarazko irakaskuntza ahalagarri honen erakusgarri ditugu.

«Handia da herri honek lortu duena, hil zorian zegoen hizkuntzari arnasa eman dio, dena den, asko dago egiteko» argitzen dute. Hori erakusten dute herri mugimendutik eta administrazioetatik publiko egin diren ikerketek: derrigorrezko hezkuntza amaitzean soilik 3 ikaslelik 1 da euskaraz mintzatzeko gai; irakasle eskoletatik irakasle erdaldunak ateratzen dira

oraindik; migratzaileen seme-alabak eredu erdaldunetara bideratzen dituzte; haur eskola euskaldunen kopuruak gora egin badu ere, erdarazko haur eskolak irekitzen dituzte han eta hemen.

EHEN ustetan, «goiko adibideak herri baten ahaleginaren erakusgarri dira, baina ezin da gauza bera esan politikari eta politikari dagokionean». Politikariek herritarren konpromiso bera izango balute, politika hobeak egingo litzekete deritzote. «Ez lukete hizkuntza ereduaren politikarik abiatuko; ez lukete euskara bigarren mailako hizkuntza izatera kondenatuko» diote.

Azken asteetan politikariek publiko eginen ari diren proposamen, lege eta dekretu berriek erakusten dutenaren arabera, Eskolak Euskaldundu Herri Ekimena osatzen dutek euskara hezkuntzan bizitzaren ari den «jazarpenaz» ohartarazi nahi dute jendartea.

# Pailazoak, dantza ikuskizunak eta informatika jaialdia, hil honetan

**Kulturaren** » Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Aukeran, Gabino Diego eta Gipuzkoa Encounter izango dira martxoan.

## ERREDAKZIOA

Inauterien zurrumbilaoa igaro zenetik egun batzuk joan dira jada, eta honez gero, jende gehienak ajek atzean utziak ditu. Atsedenditxoaren ostean, indar berriekin dator martxoa Tolosara. Gainera, hemendik egun gutxira, negua atzean utzi eta udaberriari ongi-etorria emango diegu. Honetarako, kulturekitaldi eta jarduerak ugaritortolatu dituzte eskualdeko hiri-buruan. Pailazo eta antzerki saioetatik hasita, informatika zaleen hitzordu garrantzitsuenetakoa den Gipuzkoa Encounterra.

## Aranburu Jauregia

■ **'Aurrez aurre: Emakumeak protagonista'**. Martxoaren 8aren, Emakumeen Nazioarteko Eguna-



Aukeran dantza taldeak bere azken lana, 'Gernika' izenekoa aurkeztuko du Tolosan, hil honen bukaeran. HITZA

ren harira, hainbat ekimen izango dira hilaren 3tik apirilaren 10era bitartean. Bestalde, erakusketak ikusgai izango da.

## Kultur Etxea

■ **Emakume Topaketak**. Mugarik gabe elkarteak antolatuta hitzaldia

izango da gaur 19:30ean. Guatemalako Virginia Tacam Tzul eta Claudia Samavoa dira hizlariak. ■ **Amarozko Merkatu Txikia**. Hilaren 4tik 14ra bitartean izango da elkartasun merkatua.

■ **Odol emaitzen hileroko odol ateratzak**. Hilaren 15ean izango da, ohiko ordutegian.

■ **Umorea eta barrea eguneroko bizitzan**. Izenburu horren pean, hitzaldia eskainiko dute La Risa Inteligente elkarteak hilaren

25ean, 20:00etan.

■ **Juan Alonso**, Kiropraktikari buruzko hitzaldia eskainiko du Alonso adituak hilaren 26an, 19:00etan.

## Leidor aretoa eta Topic zentroa

■ **'Internet Kafe'**. Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribe eskainiko dute emanaldia hilaren 26an, Topic-en.

■ **Pirritx, Porrotx eta Marimotots**.

Bi emanaldi eskainiko dituzte hilaren 6an, Leidor antzokian. Lehendabiziko 16:30ean izango da eta bigarrena, 19:00etan.

■ **'Una noche con Gabino'**. Gabino Diegoren emanaldia izango da hilaren 12an, Leidor antzokian, 20:30ean.

■ **'Erreka mari'**. Txotxongilo taldea Topic-en izango da beraien emanaldia eskaintzen. Bi egunetan izango dira Topic-en hilaren 13an 17:00etan eta 14an, 12:30etan.

■ **'Tinko'**. Ikasleentzako zinea euskaraz hilaren 17:00an, 09:00etan.

■ **'May Gorostiaga? Presente!'**. Topic zentroan izango da tolosarraren emanaldia, hilaren 18an, 20:30ean.

■ **'Gernika'**. Aukeran dantza taldearen azken emanaldia ikusteko aukera izango da hilaren 26an, Leidor aretoan. 20:30ean izango da saioa.

## Besterik

■ **Ahoz aho jaialdia**. Ahozkotasunaren jaialdia ospatuko da hilaren 6tik 14ra bitartean. Egutero hainbat emanaldi izango dira.

■ **VIII. Biga Enkantea**. Ferialekuan egingo da hilaren 13an, goiz guztian zehar.

■ **Trabelling jai**. Beotibar pilotalekuan izango da hilaren 13an.

■ **Txotxongiloaren Nazioarteko Eguna**. Martxoaren 21a da egun hori. Horren harira, zenbait ekitaldi izango dira martxoaren 19tik 21era bitartean, Topic-en.

■ **Gipuzkoa Encounter**. Informatika zaleen urteroko topaketak izango dira Usabal kiroledegian, hilaren 19tik 21era bitartean.

■ **Tolosako Musika Bandaren kontzertua**. Pazko kontzertua eskainiko dute hilaren 27an.

■ **Tolosa Kantari**. Hilero bezala, martxoak azken larunbatean, hau da, hilaren 27an, Tolosa Kantari izango da 12:00etatik aurrera, Agirre Doktoarene plazatik abiatuta. Alde Zaharreko kaleak zeharkatuko dituzte kantuan.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Animaliak**. Ahuntzak salgai bere antxumeekin. Interesatuak deitu ondorengo telefonoz zenbakira: 609 16 6186.

■ **Furgoneta**. Mercedes Vitoa sal-

gai. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 609 16 6186.

■ **Motorra**. KTM 125 SX. 1998koa, oso ondo zaindua. Harremanetan jartzeko deitu ondorengo telefono zenbakira: 651 70 90 23.



Emakumeak, isilpeko urteak proiektzioa. HITZA

## Emakumeen Eguneko ekintzak prest daude

**Anoeta** » Afaria eta proiektzioa izango dituzte; herritarrek interesik izanez gero, autodefentsa ikastaroa antolatuko dute.

### ENERITZ MAIZ

Datorren astelehenean, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Anoetako herriak ere ekintza ezberdinak prestatu ditu. Martxoaren 5erako afaria antolatu dute. Buztina Jatetxean izango da 21:00etatik aurrera eta 25 euro ordaindu beharko da. Izena udaltxean edota kiroldegian eman behar da eta bihar da azken eguna.

### 'Emakumeak, isilpeko urteak' proiektzioa

Hilaren 8an, astelehena, 18:00etan hasita, udaletxeko areto nagusian, *Emakumeak, isilpeko urteak* proiektzioa eskainiko dute. Proiektzio honek, berrogei minutuko iraupena izango du.

Bertan, hirurogeita hamarreko hamarkadara arteko erabateko menpekotasuna islatzen da. Izan ere, emakumeek beti izan dute loturaren bat; lehenengo aitarekin, geroago senarrarekin... Kontu korronte bat zabalteko ere derrigorrezkoa zuten gizon baten baime-na izatea edota etxe bat erosteko...

Horiek horrela, emakumeak gizaritean eman dituen aurrerapausoak aztertzen ditu dokumental honek, eta isilpeko garaietan bizitako hainbat emakumeren testigantzak biltzen dira bertan: Toti Martínez de Lezea, Arantxa Urretabizkaia, Jone Goirizelaia, Txaro Arteaga, Amaia Zubiria...

Bestetik, eta igande honetan, hilak 7, Donostian egiten den Lila-toian parte hartzera joateko gonbita luzatu nahi izan dute.

### Autodefentsarako ikastaroa antolatu nahian

Bestalde, Anoetako Udalak, herritarren artean Emakumeentzako Autodefentsa ikastaroa antolatzeko interesa dagoen jakin nahi du.

Ikastaroa Bizkaiko Emakumeen Asanbladako emakume batek emango lukeela adierazi dute eta zortzi ordukoak izango litzateke. Taldea osatuko balitz, bilera bat egingo litzateke eguna zehazteko. Eraso sexisten aurrean defendatzeko teknika fisiko eta psikologikoak, emakumeak norberarengan segurtasuna eta konfiantza, eta erasoaren aurrean autoestima eta elkartzasuna handitzea, askotan emakumeei egotzen zaizkien errudun sentimenduak landuz. Interesa duenak izena eman dezake udaletxean edo kiroldegian, martxoaren 8a arte.



Atzo eguerdian, oraindik kea zerion Musun Bordari. A. IMAZ

## Leitzako Musun Bordan oraindik kea ikusten da

**Leitza** » Beheko solairuan hasi zen sua jabea bertan zegoela eta ardiak ateratzea lortu zuen; lau orma bakarrik gelditu dira.

### ASIER IMAZ

Leitzako Musun Bordan kea ikusten zen oraindik atzo arratsaldean, eta hainbat puntutan baita sua ere. Migel Martin Sagastibeltzari, hau da jabea, Foruzaingoak ardura euren hartzen zutela esan zioten. Hala eta guztiz ere, Sagastibeltzak ez zuen ulertzen nola joan ziren sua erabat itzali gabe.

Altsasuko suhiltzaileen esanetan, neurri batean hori normala da: «Guztiz itzaltzen 3 edo 4 egun behar izaten dira gutxienez. Barneko sua deitzen zaion hori, busti arren, ez da erabat itzaltzen. Inguruan ezer erretzekorik ez baldin bada, ez da arriskutsua».

Tolosaldeko suhiltzaileen bulegotik, teiltua erortzen den kasuetan hori normala izaten dela adierazi digute: «Teila azpian sua ikusten da baina horrek denbora behar izaten du itzaltzeko». Egurrezko bigak bustitzea komenigarria izaten dela ere aipatu zuten.

### Ordu luzeak

Arkiskil auzoko baserriak 300 urte baino gehiagoko historia dauka. Sutea igande goizean gertatu zen. Jabeak oiloak entzun zituen aztoratuta goizaldean, beheko solairuan. Hasieran haizearengatik edo ilargiarengatik izango zela pentsatu zuen, «baina ez zen batere normala».

Ordularia begiratu eta 05:30ak inguru ziren. Logelatik irten eta ohol artetik beheko solairuan argi izugarria ikusi zuen. Orduan, bordaren goiko aldetik, barruan sartuak zituen ardiak ateratzen hasi zen. Ke handia zegoela gogoratzen

du Migel Martin Sagastibeltzak eta erabat larri ibili zela zereginean.

Suhiltzaileak deia jaso ostean, Iruñekoak, Altsasukoak eta herriko bertako boluntarioak, gerturatu ziren bertara. Baserriaren barnea sutan baldin bazegoen ere, teiltua salbatuko zutela uste zuen Sagastibeltzak. Baina ez zen hala suertatu eta 08:00ak inguruan teiltuak ere su hartu zuten.

Baserri osoa sutan zegoela kontuan izan da, Foruzaingoak inguruera erabat itxi zuen. Altsasuko suhiltzaileen esanetan, herenegun gauetan, berriro ere bertara joan behar izan zuten.

Foruzaingoak segurtasun hesia atzo eguerdian kendu zuten eta orduan gerturatu zen berriro jabea baserrira. Sua beheko solairuan hasi zela argi badu ere, ziur ez daki non eta nola piztu zen. Peritua betuak zituen ardiak ateratzen hasi zen. Ke handia zegoela gogoratzen

## Laburrak

### Herriko festa antolatzeko bilera, gaur 19:00etan

**ANOETA** » Ekainaren 3an izango da Korpus Eguna eta urtero bezala, data horren inguruan ospatuko dituzten festak antolatzeko bilera deitu dute. Festak izateko lehenik antolatu egin behar dira eta denen gustukoak izan daitezten, Jai Bartzordeak, herriko elkarteak eta baita herritar guztiak ere, bilera honetan parte hartzeko gonbita luzatu die. Bilerak, gaur 19:00etatik aurrera udaletxean izango da.

### Batel Txapelketako bilera 18:00etan udaletxean

**ANOETA** » Herriko festetan, ekintzetako bat Batel Txapelketa izango da eta horretarako ere bilera bat prestatu dute gaurko. Hori dela eta, batel txapelketan parte hartzeko asmoa duten koadrilentzako ikastaro bat antolatu nahi dute eta bilera honetan horren inguruan hitz egin nahi dute. Gaur, 18:00etan udaletxean elkartzeko dira eta parte hartzera animatu nahi dituzte herritar guztiak.

### Udal aurrekontuak 2010 aurkezpeneko deia

**VILLABONA** » Amasa-Villabonako Udalak, gaur hilak 2, Udal Aurrekontuak 2010 eko aurkezpena egingo du. 19:00etan udaletxeko balio anitzeko gelan elkartzeko dira. Bertan, aurtengo urteari dagokion diru partidak aurkeztuko dituzte. «Herri parte hartzean oinarritutako Villabona nahi dugulako» erabat irekia izango den aurkezpena herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte.

## Cahan herrian atxilotua ez da Gregorio Jimenez

### ERREDAKZIOA

Hasiera batean igandean, Cahan herrian (Normandia, Frantzia) Gregorio Jimenez tolosarra atxilotu zutela zabaldu bazuten ere, polizia iturriek, atzo 13:30ak aldera jakinarazi zuten Ibon Gojeaskoetxea Arronategi eta Beñat Aginagalde Ugartemendia uesteko etakideez gain atxilotu zuten hirugarrena, Jose Lorenzo Aiestaran

Legorburu Fanekas lezoarra zela eta ez Jimenez tolosarra.

Igandean, Cahan herrian (Normandia, Frantzia) Gojeaskoetxea eta Aginagalde atzeman izana oso garrantzitsua zela nabarmendu zuten atzo Poliziak, lehena ETAKo buruzagi nagusizat jo baitzuen, eta bigarrena, Uria eta Carrascoren hiltzailetzat.

### Kirol emaitzak

<b>PILOTA</b>	Urbietza-Zinkunegi (A-S)	22
<b>Binakako Txapelketa</b>	Hernani	10
Bengoetxea VI- Otxandorena	Jon Jaunarena (Aurrera)	22
Inigo- Berotz	Agurain	8
<b>Saralegi</b>	Xala-Arruti	44
<b>Noticias de Gipuzkoa Txapelketa</b>	Kabier Jaunarena	11
<b>Mujika-Arratibel</b>	Gialoala	22
<b>Berria Txapelketa, Aurrera-Saiatz/Bergara Labaka-Elastondo</b>		22
Exabae-Exabae		2
<b>Mujika-Arratibel</b>	Gartzizena	6
Gallastegi-Resusta	Telletxea	16
<b>Renobales-Galaraga</b>		22
Muguruzta-Jauregi	Hemerako Txapelketa	22
<b>Donetebeko Txapelketa, Finalak</b>	Auztiz Olano-Jauregi	22
<b>Alberdi-Cristobal</b>		3
<b>Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Palakako Txapelketa, Zelaia-Elastondo</b>		22
<b>Kutxa Sari Nagusia</b>		22
<b>Renobales-Landibar</b>		12
Irigoien-Iparagirre	Elgezabal- Ruiz de Laramendi	25
	Etxeloa-Arozoa	30
<b>Ortuolako Txapelketa, Finalak</b>		22
<b>Epelde-Telletea</b>		22
<b>Larrañaga-Diez</b>		19
<b>Mungia Txapelketa, Finalak</b>		22
<b>Santxo-Jaka</b>		22
<b>Urbietza-Zinkunegi</b>		12
<b>Euskal Herriko Txapelketa</b>		22
<b>Ibai Arratibel (Aurrera-Saiatz)</b>		22
Zugarralde-Pilota Eskola		19
<b>Jon Ander Albizu (A-S)</b>		17
<b>Paz Zizande PE</b>		22
<b>Joseba Sempere (A-S)</b>		10
<b>Gura Tolosa PE</b>		22
<b>Labaka-Maitza (A-S)</b>		22
<b>Oiarpe PE</b>		22



Joseba Otaegi zuzarkidarra Apeztiako apustua. J. URKOLAZ/OTAZO HITZA



Epelde-Telletea. A. URKOLAZ/OTAZO HITZA

## Rodriguez, Otxoa, Villena eta Mujika garaile eskolartekoan

**Xakea** » Herenegun jokatu zen Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketaz bertan, eskualdeko 60 gaztetok hartu dute parte.



Tolosako Kultur Etxean jokatu da asteburu hauetan, txapelketa. » HTZA

**EREDAKZIOA**  
Amaitu da jada Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketa. Herenegun jokatu ziren norgehiagaka 60 zokos eskoletan. Lau egunetan zehar eskualdeko neska-mutilak Tolosako Kultur Etxean aritu dira apirilaren bigarrenetik jokatuko den Gipuzkoako Txapelketarako sailkatu samoz. Ia 60 partidea izan dira guztira, infanti, alebita eta benjamin mailatan banatuta. Denora hamahiru partidajokatu diru jokalaririk bakarra, norgehiagaka bakoitzeraiko hamabost minutuarekin. Benjaminetan Dr. Fleming-eko (Villabona) Imanol Rodriguez izan zen garaile, Anxetako Ibañeta eta Errorenak (Aurrera-Saiatz) Imanol Albizu, eta Errorenak (Aurrera-Saiatz) Imanol Albizu, eta Errorenak (Aurrera-Saiatz) Imanol Albizu.

lako Iraia Otxoa bigarren eta Iruriko Ibañeta Xabier Arrospe bigarren. Alebitan Anxetako Oier Otxoa izan da txapeliduna, eta berezatek Julen Martín, Anxetako baita ere, eta Iñigo Arin izan ditu. Adon hau, Jesusen Bihotzakoa (Villabona). Maila nagusian, infanti ileitan, izainko txapela errepikatu du Jesusen Bihotzakoa Aitor Villenak. Bigarren Otxoa (Tolosa) Danel Inchaurren izan da eta hirugarren Eneko Maiz, Jesusen Bihotzakoa hau ere. Bestalde, nesken txakoa sailkapen berezia osatu da baita ere. Lehen Ibañeta, Jose Mujika izan da eta bigarren eta hirugarren Ane Sanchez eta Aiora Otxoa, biak Anxetakoak.

## Aurrera-Saiatz elkarteak, Berria Txapelketaren final laurdenetan



Berria Txapelketaren parte hartu zuten Aurrera-Saiatz elkarteak pilotariak. » HTZA

**Pilota** » Amezketako Zazpi-Hurri elkarteak pilotariak izango ditu aurkarik, hilaren 12an, Alegiako frontoian.

**EREDAKZIOA**  
Aurrera-Saiatzeko pilotariak final laurdenetako txarretan lotu dute asteburu honetako elkartekoi irabazita, Beotibar frontoian jokatutako partidak. Kadeteetan Labaka-Elastondoko 22-21 irabazi zuten Exabae-Exabaei. Jubeniletan Mujika-Arratibel 21-22 galdutuz gero, Nagusietan Renobales-Galaraga 22-14 irabazi zuten Muguruzta-Jauregi. Final laurdenetan Amezketako Zazpi-Hurri elkartekoi izango dituzte aurrean.

Lehia Alegiako frontoian jokatuko da, hilaren 12an. Kadeteen mailan partidak nahiko erraz irabazi zuten Aurrera-Saiatzek, bikoteen ardoak ezberdintzena handia zelako. Jubeniletan eta nagusietan partidak gogorragoak izan ziren. Nagusietan, lehen zatia izan zen batez ere gohorra, baina bigarren goan alde atera ahal izan zioten Aurrera-Saiatzek.

Bestalde, Euskal Herriko Txapelketan finalerdia izan zuten jokoa. Finalerdi irabazitako sailkatu dira: kadeteetan, banakakoan, Ibai Arratibel; nagusietan, banakakoan, Jon Ander Albizu; eta jubeniletan, binakakoan, Xabi Urbietza eta Txomin Zinkunegi. Finalera pasa ez direnak Joseba Sempere, nagusien ohorezko mailan, banaka, eta Enko Labaka eta Imanol Maiz, kadeteetan, binakakoan, izan dira. Gaur beste finalerdia jokatuko dute elkarteko pilotariak: Oier Apezkoa eta Aitor Brian Txolan Lakua taldearen aurka orok dira 22 urte arripoke mailan, Gasteizen, 2008etan. Beste hainbat finalerdi parte hartu dute asteburuan. Donetebeko, kadeteetan, Iurriga-Labakak (Aurrera-Saiatz) 22-14 irabazi zioten Zelaia-Elastondori (Aurrera-Saiatz). Nagusien mailan, Aurrera-Saiatzeko Renobales eta Landibarrek 22-12 galdutuz irabazi zuten Irigoien-Iparagiriren aurka. Ortuellan, Epelde-Telleteak (Aurrera-Saiatz) 22-19 irabazi zioten Larrañaga-Diez. Azkenik, Mungian, Urbietza-Zinkunegi 12-22 galdutuz irabazi zuten Santxo-Jakarekin.



Aurkari agertu ez zenez, bakarkako lanean aritu ziren tolosarrak herenegun. » HTZA

## Trindoor Txapelketan Tolosak aurrera egin du

**Kirolak** » Izaizun Aitorragastegi, Irene Sansebastian eta Amaia Arbillagak osatzen dute talde tolosarra.

**EREDAKZIOA**  
Bakarkako lanean aritu zen Izaizun Aitorragastegi, Irene Sansebastian eta Amaia Arbillagak osatzen dute talde tolosarra. Baina arazoi desberdinetatik azkenean hirurak iturk ezin izan zuten Trindoorren parte hartu, tolosarren mesedetan, bistan da. Baina hartatik ez zuten loak hartu Tolosaldeko hiru taldeak: Enakuzkoen Herri Arteko Trindoor Txapelketan parte hartu duten 12 herrietatik 8. denboran egin zuten Izaizun Aitorragastegi, Irene Sansebastian eta Amaia Arbillagak.

tolosarrak marka orokor onenen pare biltzea zaila zela oso, 20 segundoko atzerapena zuten jada. Arbillagak korrikalaria, Izaizun herrikoia bera, berez presio handirik gabe hasi zen korrika baina apustu eginez orduko 16 kilometrorak irazi zuten hasi eta lasterrena mailan erabiltzaria. Azkenean ordea, berezitatez irabazi zuten, eta errimoa egokitu eta dotore amaitu zituzten 1.500 metroak, 3 minutu 59 segundotan.

**8. denborarik onena**  
Guztira Tolosarek kanporaketarik 8. denborarik onena egin zuten: 14 minutu 48 segundu. Baina

garrantzitsua da, finalerdietarako sailkatu ziren. Hainek bezala sailkatu dira Azpeitia (1), Markina (2), Azkoitia (3), Billo (5), Gernika (6) eta Zarautz (10). Kanporaketa zuzenak izan direnez, Abadiño (4), Donostia (6) eta Lazkao (7) kanpoan geratu dira nahiz sailkatutako zenbait baino marka hobek egin. Kanpoan geratu dira ere Murtiku (1) eta Getaria (12).

Hiru kanpoan zuten erabakiko dortsin Trindoorra Lakua Finalera begira. Zazpi talde arliko dira baita eta kanporaketa bultzatuko irabazleak gaitu segundoko denborarik onena egiten duena sailkatuko dira Lakua Finalerako.



Irene Sansebastianen biketela gainean. » HTZA

**Amaieran presio handirik gabe**  
Aitorragastegi Trindoorreko lehen edizioan parte hartu zuen, kirolaribotozkatu irabazteko egiten zuten garaian, eta orduan baino hobeto moldatu zen herenegun arauetan. 3 minutu 59 segundotan eginez 750 metroak, lehen edizio baino 20 segundu azkarrago orduko hartan ordea segundoko bi kirolari gabe izan zuten. Finalean, arrauen ohiua ez izanagatik denboratuak egiten zuten.

Sauze besterik egin zuten hantza gero bizikletan. Debarraren arden birindulariak orain arteko bigarren marka jarri zuen 4 kilometroko 3 minutu 44 segundotan osatuz. Mireia Epelde (Azpeitia), Lore Txurruka (Markina) eta Mainer Otxa (Azkoitia) baina segundoko bat azkarrago izan zuten, marka galarat: Hirugarren saioan, korrikalako, hasterako bazekiten

## Saralegi eta Olanok irabazi dute Zilarrezko Aizkolarien txapela

**Leitza** » Apeztiako zezen-plazan jokatu ziren finalak larunbatean; leitzarrek bost segundoko aldeaz lortu zuten garaipena.

**EREDAKZIOA**  
Apeztiako zezen-plazan Urrezko eta Zilarrezko Mutilko finalak jokatu ziren larunbatean. Binakako Aizkolaritza Txapelketaren baitan. Zilarrezko Mailan Ruben Saralegi eta Arkaitz Olanok 15:50eko denboran egin zuten eta euren aurkariak 15:55koa.

**Larrea eta alia-sembak**  
Urrezko Mailan Donato Larrea eta Olanok Larrea eta alia-sembak irabazi zituzten. 15:55koa.

## Joseba Otaegi irabazi du Alex Txikonen aurkako apustua

**Zuzarkid** » Hasiaren guzuzak estu baldin baziren ere, aizkoran abantaila handia eta erabakigarria lortu zuten Joseba Otaegi.

**EREDAKZIOA**  
Herenegun, 17:00etan azkenean, Joseba Otaegi eta Alex Txikonen apustua jokatu zuten Apeztiako zezen-plazan. 100 kiloko harria 25 aldiz, 14 kana-erdiako aizkoran eta 7 kilometro korrika egin behar izan zuten. Jendekaren erantzuna bertik ikaragarria izan, 1500 lagunek gora elkartu baitziren lehia bertatik bertara ikusko gogoz.

**Gaiko aizkoran**  
Harturaren hasi zuten apustueta Otaegi zuzarkidarek hamabi segundoko baino ez zuzarkidarekin Txikoni. 25 aldiz harria jasoaz 3

minutu eta 13 segundu behar izan zuten Otaegi.

Aizkoran bertan, lehen kana-erdiak Txikonen bota zuten aurrera baina bigarren erdian bertan aurrera, Otaegi alde asko handitu zuen. Zuzarkidarek aizkorako lanak bukatzean, Txikoni erabakigarria emon pasatze geroztan zuzarkidaren eta azkenean, Otaegi, 11 minutu eta 28 segundoko aldea aterazi zion bigarren proba honetan.

Zuzarkidarek, korrika poliki-poliki hasi zen, aldez, Txikoni bizi hasi zen denbora kendu nahian. Azkenean, Joseba Otaegi ordu bat, 22 minutu eta 2 segundu behar izan zituen lan guztiak bukatzeko eta Alex Txikonen, ordu bate, 26 minutu eta 45 segundoko bukatu zituen egin beharrekotako lanak.

Euskal Irmiten esandakoren arabera, Otaegi jendekaren erantzunarekin harturik gelditu zen. Egindako lanarekin guztiz gustura egin zen.

## Lau tiratzaileak itzuli dira Munduko Txapelketatik

**EREDAKZIOA**  
Iragan astean amaitu zen Munduko Sokatira Txapelketa Italian. Bertan eskualdeko lau tiratzaile aritu ziren lanean. Tolosaldeko eta LEITZTARDEKO HITZA egunkarian oker azaldu zen datu hau. Hainek dira lau tiratzaileak: Lander Otermín, Mirian Ekorza, Oinartz Iraola eta Imanol Otermín. Lander Otermín, Abadiño A-rekin.

herenegun galdutuz, Otermín biki urrezko elkarri zuten (560 eta 600 kiloto) eta Ekorza eta Iraola binakako (500-540 kiloto). Herrialdeko Oinartz Iraola eta Ekorza bizi den Mirian Ekorza tolosarra Sokatira taldearen arduraduna da, Imanol Otermín Abadiño B-rekin eta bere anaiz gaitza, Lander Otermín, Abadiño A-rekin.

# Gurasoei zuzendutako eskolak antolatu dituzte hil honetarako

**Alegia** » San Juan eskolako eta Aralar Institutuko guraso elkarteek Baillararekin batera antolatu dituzte eskolak; lehenengo saioa gaur izango da.

IMANOL GARCIA

Alegiako San Juan eskolako eta Aralar Institutuko guraso elkarteek gurasoentzako eskolak antolatu dituzte hil honetarako. Baikara Gipuzkoako Gurasoen Elkarteke Federazioaren Esther Martinez pedagogoa emango ditu eskolak. Hiru gai jorratu dituzte bertan: *Gizarte trebetasunak eta gatazken ebazpenak*, *Autoestimua* eta *Guraso, eta seme-alaben heziketa emozionala*. Lehenengo saioa gaur bertan izango da, 18:00etan. Saio guztiak patioko liburutegian egingo dira eta guraso guztiei irekita dago parte hartzea.

Guraso elkarteak berak eskatutako gaiak izango dira saioetan jorratu direnak. «Gaur egun heziketa emozionalarena dezente eskatzen da gurasoen aldetik», azaldu du Martinezek. «Nahikoa jorratzen ari gara aurten gai hori. Komunikabideetan indarra hartu du. Gehiago hitz egiten da emozioei buruz, zer garrantzitsua den hauek erregulatzeko eta nik uste dut motibazioa sortu duela gaia lantzeko».

Horrelako ikastaroak, Martinezek azaltzen duenez, «batez ere familia eta elkarbizitza giroa hobetzeko, harremanak hobetzeko» balio dute. «Egunerokotasunean ditugun egoeren inguruan hausnarketa egiten da. Nahiko parte-



San Juan eskolan eta Aralar Institutuan antolatu dituzte gurasoentzako eskolak. I. ORTIZ DE ZARATE

hartzaileak izaten dira eta hori eskatzen da ere, taldeak parte hartzea eta hausnarketa denon artean egitea».

## Komunikazioa lantzen

Guraso eskoletan gai batzuk beti errepikatzen direla dio pedagogoak: «Komunikazio gaiak dira, hasieraldiak nola kontrolatu... Gurasoek egoerajakin batzuetan nola esku hartu. Batez ere, gurasoen eta seme-alaben arteko harreman egunerokotasunean jorratzen da».

Familian sortzen diren harremanak oso garrantzitsuak direla dio Martinezek: «Gurasoak haurren ispiuak dira. Garrantzia gehiago du gurasoen jarrera esaten dutena baino. Gatazka bat dagoenean etxean, oihuka hasten baldin badira, haurrak gatazkei oihuka aurre egiten ikasten du. Gero eskolara joaten denean eredu hori daukanez, horrela erreakzionatzen du».

Gurasoek orokorrean dituzten gabeziei buruz galdetuta, «batez

ere edozein gai hobetzen duena komunikazioa» dela dio. Gabezia handienetakoa besteari entzutea dela dio. Kontua ez da «entzutea bakarrik, baizik empatikoki entzutea». Martinezek gaineratzen du «adierazpen-komunikazioa eta ez erasotzailea» erabili behar dela. Adierazpen-komunikazioa, zehazki, «errespetuz egiten den komunikazioa, zuzena eta argia da. Besteari sentimendua mintu gabe gauzak adieraztea, baina zuki ere errespetua eskatzen duzue. Gatazka dagoenean, gustatzen ez zaizuna errespetuz komunikatzeko gaitasuna, beste pertsona mintu gabe».

Komunikazioaren arloan adibide bat izan daiteke norbaiti *beti berdina egiten duzu* esatea. «Horrekin ez du laguntzen komunikazioari. *Beti* eta *inoiz* ez dira berez existitzen», azaltzen du Martinezek. «Haurrak hori ez dela justua pentsatzen du». Komunikazioan ikusten den beste gauza bat mugak jartzearena da. «Gurasoek mugak

jarri behar dituzte eta haurrek muga horiek behar dituzte. Baina mugak jartzerakoan askotan epaitzen da haurra bera eta ez bere jarrera. Horrelako gauzak lantzen ditugu».

## Denak ez gara berdinak

Guraso eskoletan lantzen duten aurreko gauza da «ez garelako berdinak», dio pedagogoak. Eta nik ezin ditut errezetak eman gurasoei, ez ditudalako seme-alabak ezagutzen eta ezta gurasoei beraiei ere. Pauta batzuk ematen ditugu, baina gero bakoitzaren ezberdintasunetik abiatzen dira. Seme-alabak hezterakoan ez ditugu berdin hezten, biak ezberdinak direlako».

Bakoitza bere burua ezagutzeko garrantzitsua dela dio guraso eskolan arduradunak: «Hasieran dinamika moduko batzuk egiten ditugu. Nik eskatzen diet beraien buruarekiko hausnarketa egitea. Jolas bat egiten dugu eta bakoitzak bere bost ezaugarri esan behar

## » EGITARAUA

### Gizarte trebetasunak eta gatazken ebazpenak

- **Egunak.** Martxoaren 2, 9 eta 16; asteartea.
- **Ordua.** 18:00etatik 20:00etara.
- **Tokia.** Eskolako patioko liburutegia.
- **Gaiak.** Komunikazioaren efikazia areagotzea, entrenamendu eta hausnarketa guneak sortzea, komunikazio kanalak ireki eta irekita mantentzea...

### Autoestimua

- **Egunak.** Martxoaren 5ean eta 12an, ostiralak.
- **Ordua.** 14:15etik 16:00etara.
- **Tokia.** Eskolako patioko liburutegia.
- **Gaiak.** Autoestimua eta auto kontzeptuaren osaketaren abiapuntuak ezagutzeko, nortasunaren garapenean autoestimua eragintzea...

### Guraso eta seme-alaben heziketa emozionala

- **Egunak.** Martxoaren 23an eta 26an, asteartea eta ostirala.
- **Ordua.** 14:15etatik 16:00etara.
- **Tokia.** Eskolako patioko liburutegia.
- **Gaiak.** Adimenaren edo adimenaren auzia, trebetasun emozionalak, gizarte trebetasunak, emozioa, sentimendua, adorea...

ditu. Eta konturatzen gara zaila dela bakoitzak bere buruari begiratzea». Heziketa «bizitza guztira prozesua» dela dio. «Egoera berriei aurre egiten diezu. Kontua da baliabideak izatea. Ez damagia bezala, baizik pixkanaka aldatzen joatea, eta konturatzen zarenean jarrera ez dela egokiena, gutxienez kontziente izan zara beste modu batera egin daitekeela». Martinezek nabarmentzen duenez, «ez da errudun sentitzeko, baizik pixkanaka hobetzen joateko. Ikastaro hauetan gehien egiten dena da antzietatea kentzea, beldurrak murriztea. Konturatzea beraien artean asko identifikatzen direla eta elkarri laguntzea badaukatela».

## H Hilberria

### JEXUX IDIAKEZ KORTA

(Garazi Idiakez Irastorzaren aita)

Hau idaztea zuri egiten zaigu zaila nahiz eta orain heldu agurtzeko garaia. Gogoan izango zaitugu Jexux gizon alai.



ORDIZIA  
2010eko  
martxoaren 2a

Jakintza Ikastolako DBH 3ko ikasleak

### JOSUNE ARBELAITZ ELORRIAGA

1971-02-25 / 2010-02-07

Ez nahi gabeko gizartearen  
hilketa soziala.

Maitasunez bizia, gorrotz asko ikusia,  
horregatik guretzako inoiz  
eta inora ez hoia



Maite zaituztegunok



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 9:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Udalak 2010eko aurrekontuak onartu ditu

**Ibarra** » EB kontra agertu zen; etxebizitzak, erretiratuaren etxea eta eguneko zentroa egiteko zorpetu izana salatu du.

## ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak pasa den ostiralean egindako ezohiko osoko bilkuran 2010eko aurrekontuak onartu zituen. EB izan zen kontra bozkatu zuen alderdi bakarra. EAJ, Hamaikabat eta PSE-EEk aldeko bozka eman zuten, beraz.

Onartutakoaren arabera, «kulturasailarekin estuki lan egiten duten taldeei laguntzeko politikarekin» jarraituko dute; eguneko zentroaren proiektua ere ez dute baztertzen, hau delarik «lau urte hauetarako erronka handienetako bat»; kirol jarduerak bultzatzen ja-

## Ogasun arloari dagokionez orain arteko «dinamika berarekin» jarraituko dute

rraituko dute; eta baita Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia zabalteko hartutako konpromisoekin ere.

Era berean, hezkuntza arloari dagokionez Uzturpe ikastolaren, Haur Eskolarekin eta Loatzoko Musika Eskolarekin 2.003an hartutako konpromisoarekin jarraituko dutela argitu dute. Ogasun arloari dagokionez, «aurreko urteetako dinamika berarekin» jarraituko dutela argitu dute, hau

da, «zerbitzuak ahal den neurrian hobetuz eta zergak ahalik gehien Ibarrako errealitatera gerturatu, ahal den neurrian, beroriek igo gabe. Horretarako ahalik eta dirulaguntza gehienetara joko dugu, beraiek era egokian kudeatuz».

## Diru kopuru zehatzak

Horiek horrela hau da arlo bakoitzera bideratzeko aurreikusi duten diru kopurua: euskara eta hezkuntzara 437.922 euro bideratuko dituzte; obra eta zerbitzuetara 983.876 euro; hirigintzara 374.688 euro; kultura eta gazteriara 383.200 euro; kirolerara 356.600 euro; gizarte zerbitzuetara 2.737.781 euro; eta ingurumenara 192.411 euro.

Era berean, zorpetze mailaren inguruko datua ere eman du Ibarrako Udalak. Horiek horrela, urte honetarako aurreikusitako zorpetze portzentaia %3,317koa izango da eta urteko konpromiso karga, beraz, 140.891,42 eurokoa da.

## EB: «Aurrekontua kudeaketa txarraren emaitza da»

Ibarrako Ezker Batua alderdiko Francisca Sanchez bozeramaileak argitu duenez, aurrekontuen aurkako bozka eman zuen hauek «kudeaketa txarraren ondorio» direlako eta «inprobisazioan oinarritzen» direlako. Honek guztiak herria «ekidin zitekeen zorpetzera eraman du», gaineratu du.

«Ditugun baliabideak oso gaizki kudeatu dira, etorkizunera begiratu gabe egin da lan, are gehiago egoera ekonomikoa txarra izango zela aurreikusi zitekeenean, Eude-



EBk Udala etxebizitza dotzionalak egiteko zorpetu izana salatu du; Beheko Biden egingo dute eraikin berria. R. CALVO

lek esan bezala», zehaztu du. Sanchezek esandakoaren arabera, EB ez da zorpetzearen kontrakoa, baina zorpetzea «ibartarren gizarte beharretara bideratzen bada, baina ez Udalak egindako kudeaketa ez eragin korra ordaintzeko». Zentzu honetan, Udalak Beheko Bidean 2012rako etxebizitzak, egune-

utzi behar zuen, besterik gabe, baina jabetza galdu gabe. Kudeaketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak egingo luke». Baina Udala «tematu» egin zen eta ez zuen hitzarmenaren bidea jorratu nahi izan, ondorioz «1,3 milioi eurotako mailegua» eskatu behar izan dutelarik. Era berean, TAO sistemaren

kontra ere agertu da Ezker Batua alderdia, «74.000 euro balio du eta ibartarrak kontra daude».

Bukatzeko, Francisca Sanchezek Ibarrako egoera ekonomikoa «kezka garria» dela esan du eta horregatik «arazoei aurre egingo dieten aurrekontuak» behar direla nabarmendu du.

## Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia zabalteko hartutako konpromisoak ez dituzte baztertu

ko zentroa eta erretiratuaren etxea bilduko dituen eraikinaren inguruan mintzatu da. Zehazki, etxebizitza dotzionalen inguruan Sanchezek hauxe argitu du: «Ezker Batuak hauek egiteko aldizkatze bat eskaini zion Udalari, hau da, hauek egiteko Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza sailarekin hitzarmena sinatzeko, hartara herriak dirurik ez jartzeko. Udaletxeak lurrari gizarte-helburu batetarako

## » DATUAK

### Diru-sarrerak (guztira 6.926.500 euro)

- Zuzeneko zergak. 901.200 euro.
- Zeharkako zergak. 35.000 euro.
- Tasak eta prezio publikoak. 559.016 euro.
- Transferentzia arruntak. 2.714.229 euro.
- Ondare bidezko sarrerak. 38.000 euro.
- Inbertsioen besterenganatzea. 293.000 euro.
- Kapital-transferentziak. 528.992 euro.
- Finantza aktiboak. 200 euro.

■ Finantza pasiboak. 1.856.863 euro.

### Gastuak

- Langileak. 1.300.650 euro (2009an 1.337.164 euro izan ziren).
- Gastu arrunta. 1.851.826 euro (2009an 1.629.362 euro)
- Transferentziak. 938.724 euro (2009an 923.949 euro izan ziren).
- Inbertsioak. 2.528.100 euro (2009an 1.134.833 euro).
- Finantza aktiboak. 2.000 euro.
- Finantza pasiboak. 285.200 euro (2009an 103.450 euro).

# 'Luze' finaletik at gelditu da

**Leitza** » Asteburuan Iruritan izan zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako saioa; 'Luze'k bosgarren egin zuen.

## ERREDAKZIOA

Xabier Legarreta nagusitu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bigarren finalurrekoan eta Lesakako finalerako zuzeneko sailkapena lortu zuen. Bertsolari aranoarra seguru aritu zen saio osoan, eta huts nabarmenik egin gabe, erraz samar lortu zuen lehen postua. Orain beraz, igandean, hilak 7, Ata-



Iruritako saioan 200 lagundik gora bildu ziren bertsolariak ikusteko. HITZA

rrabian izango den saioaren zain daude bertsolariak, orduan erabakiko baita finalaren osaketa.

Iruritan gure eskualdeko ordezkaria, berriz, Miel Mari Elosegiren postua geratu zen, Iñigo Ibarren aurretik, 359,5 punturekin, eta beraz, sailkapen orokorreko hamargarren postuan dago, jada finaletik at.

Aipatu behar da Iruritako Gizarte Bilgunea bete egin zela, 200 lagundik gora elkartu zirelarik saioa ikusteko eta giroa beroa izan zen. Kanpoan haizete bortitza zegoen eta horren eraginez argindarra joan zen, baina azkenean, generadore baten laguntzaz egin ahal izan zen saioa. Legarretarekin batera, Etxarriko finalurrekoan sailkatu zen Julio Soto da finalean

postua ziurtatua duen bertsolari bakarra. Atarrabiako azken finalurreko erabakigarria izanen da finalean nortzuk kantatuko duten jakiteko eta gauzak oso estu daude.

## » SAILKAPEN OROKORRA

- Julio Soto. 421 puntu.
- Xabier Legarreta. 404,5 puntu.
- Estitxu Arozena. 397 puntu.
- Oskar Estanga. 392 puntu.
- Xabier Terreros. 390,5 puntu.
- Julen Zelaieta. 385,5 puntu.
- Iñaki Aleman. 375 puntu.
- Ander Fuentes 'Itturri'. 370,5 puntu.
- Iñigo Olaetxea. 368 puntu.
- Miel Mari Elosegiren 'Luze'. 359,5 puntu.
- Saioa Alkaiza. 336 puntu.
- Iñigo Ibarra. 331 puntu.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Leitza:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra/Leitza:** 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza/Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Musika

■ **Tolosa.** Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinen *Internet kafe* emaldia ostiralean, hilak 5, Topic-en 20:30ean.  
■ **Tolosa.** Agoraphobia eta Elbether ostiralean, hilak 5, Bonberean 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Ollarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak



### Zorionak!

**Malen Agirre Agirre (5 urte).**

Gauza ederra da zu gure artean guztiok alaitzen izatea!

Muxurik eztieta eta zorionak!

**Gizartea** » Asteburuan izandako haizeteak kalte ugari eragin ditu; Abaltzisketako izan da ikusgarriena.

### ERREDAKZIOA

Asteburuan, ostiralean hasi eta igandea goizaldera arte, haize bortitzak izan dira Euskal Herriko txoko askotan. Eskualdean ere izan zen haizetea eta kalte ugari eragin ditu. Ikusgarriena, behar bada, Abaltzisketan gertaturikoa izan da. Izan ere, plazan zegoen garabia bota zuen haizeak ondoko frontoiaren eta Seroretxe etxebizitzaren gainera.

Larunbatean erori zen garabia, 14:30ak inguruan. Frontoi gainera erori zen zutabea, tolestu egin zen eta besoaren mutur batek etxe baten teilatua jo zuen. Behetako gain beste bi solairu ditu etxeak. Bigarren goan ez da inor bizi, baina lehenengoan bai eta susto handia hartu zuten bizilagunek. Etxearen teilatuak kalte handiak izan zituen eta garabiaren kolpeak uraren hodia puskatu zuenez, etxebizitzara ur ugari sartu zen. Guzti horren ondorioz, etxebizitzako bizilagunak eraikinetik atera behar izan dute eta Jexux Mari Gorostidi alkateak azaldu duenez, «lehenetsuna bizilagunentzako lekua topatzea da».

Frontoiari dagokionez, teilatuaren zati bat erori zen. «Eskerrak haizeak garabia bota zuenean ez zegoela ordu horretan inor frontoian», azaldu du Gorostidik. Hainbat etxebizitza eta baserrietan kalteak izan direla azaldu du alkateak. «Teilatu puska handiak eraman ditu haizeak, teilak ere eraman ditu eta leihoak mugitu edo puskatu ditu. Zenbait baso ere

# Haize bortitzen biharamuna



Kalte ugari eragin zituen Abaltzisketako garabiak. HITZA

kaltetu dira, zuhaitzak bota ditu haizeak, eta baita trafikoa seinaleak ere». Argirik gabe ere izan ziren herriaren larunbateko 17:00etatik igandeko 19:00etara bitartean.

Abaltzisketan horrelako haizeirik ez dutela ikusi azaldu dute herriarrek. Larunbat goizean 142 kilometro orduko markatu zuen eta arratsaldean 170 kilometro orduko abiadura hartu zuen. Larraitz eta Abaltzisketa ingurua oso hai-zetsua dela erakutsi du asteburuan jasandako eguraldiak.

### Argirik gabe

Abaltzisketakoaz gain, hala ere, arazo ugari izan ziren. Etxebizitza askotako teilatuetakoa teilak eraman ditu haizeak, pertsiak eta eguzki-oihalak puskatu dira... Era berean, autobus zein tren zerbitzu ugari ere bertan behera geratu ziren eta herri askotan (Armezket, Ikaztegieta eta Villabonan, besteak beste) argindar arazoak izan dituzte. Ikaztegieta zonalde batean ere atzo 18:30ak arte ez zuten argindarrik izan eta Lizartzan ere arazoak zizutzen atzo.



Sarobe baserriko teilatua eta Ipintzabarrena baserriko ukuihua, kaltetuta. HITZA

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>